

Ze barri?

2001.ko
MARTXOA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

48 zkia.

Urlatik Landetara

Elkarrizketa:
Jesus Garmendia

ERREPORTAIA:
Irakasle Eskolaren zilarrezko
ezteiak

MIRENTXU

TABERNA

Kafe goxoa hartzeko

Tfnoa.: 943 71 41 67

TXALAPARTA

JATETXEA

Tfnoa.: 943 71 50 46



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 71 51 20

TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa: 943 71 47 29

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**

GOLO
gazte moda

Tel.. 943 71 45 61

AZKOAGA

ESTANKOA

Zure Zerbitzura



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

REPARACIONES LENIZ, C.B.

Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 943 715061



 **Charter**

Eta gainera, zerbitzua etxera!

Aranburuzabala, 3
Tel. 943 71 45 46

Ordutegia: 9etatik 13 1/2 erdietara
eta 17etatik 20etara.

**Zure
publizitatea
hemen...**

Zure Publizitatea Ze Barri? aldizkarian ikusi nahi baduzu, gurekin kontaktuan jarri besterik ez duzu. Geuk emango dizugu behar duzun informazio eta zerbitzu guztia.

Ze Barri? aldizkaria,

Intxaurtxueta 9-10, Eskoriatza.

Tel.:943715434

E-maila: axtroki@topagunea.com

San Pedro 9, 1 behea
20540 ESKORIATZA
Tel. 943 71 54 34
E-maila: axtroki@topagunea.com

ARGITARATZAILEA:

AXTROKI
Kultur Elkartea

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Garikoitz Kortazar
Andoni Bengoa
Lorea Agiriano
Iñigo Biain

KOLABORATZAILEAK:

Aitor Uribetxeberria
Aitor Urrutia
Asier Errasti
Juanma Pagalday
Iñaki Agiriano
J.J. Arrieta
Jon Errasti
Museo Eskola
Lourdes Martinez
Edurne Unzueta
Iranzu Gabilondo

INPRIMATEGIA:

Eguzkigraf, Koop. Elk.

TIRADA:

2.000 ale

LEGE GORDAILUA:

SS - 200/99

ISSN:

1139-9856


ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten
aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



ESKORIATZA



BEHARREZKO LAN TRESNA



Artikulu hau idazteko beharrezko lan tresnak hainbat izan daitezke: papera, boligrafoa, ordenagailua... Zenbatzekotan, zerrenda amaigabea litzateke. Baina bada bat, behar honetan ez ezik beste edozein lanetarako ere garrantzitsu jotzen dudana: euskararen erabilera. Bistakoa da artikulu hau euskaraz idatzi dudanez, euskaraz jakitea ezinbesteko izan dudala, bestela, jai neukan! Baina gainontzeko lanbideetan ere, euskarak, komunikazio tresna gisa, duena baino presentzia nabarmenagoa izan beharko luke.

Enpresak komunikazio gune garrantzitsuak dira. Ostiraleko merkatuetan bezala izaten da hemen ere, solasaldiak nonahi. Lankideen arteko eguneroko harremanetan ematen da komunikaziorik aberatsena. Komunikazio bertikalago bat ere badago, ordea, enpresaren gaineko erabakiak hartzen diren bilerak eta horrelakoak. Haatik, bai batean bai bestean, euskararen presentzia eskasa da oraindik eta egoera hori aldatu beharra dago.

Badira arrazoi anitz hori pentsarazten didatenak, baina bada bat enpresen helburuekin ere bat datorrena: enpresek bezeroaren nahiak asetzeari izaten dute helburu, ezta? Are gehiago orain, bezeroaren asebetetasuna hain sutuki bilatzen den une honetan. Hori dela eta, gizartea enpresen erreferente nagusi bihurtu da. Enpresen filosofia aurrerakoiak bezeroekiko arreta berezia izaten du. Horrela, komunikazio esparruak asko landu dira (inkestak, galdetegiak...). Baina, euskarari dagokionean, enpresek modu apalean jarraitu diote gizartean sustraitu den euskalgintzaren joerari.

Euskararen normalizaziorako bidean, gure gizartean urrats handiak eman dira eta esan genezake, euskalgintzaren kontzientzia haziz doala. Horren adibide, heziketan "D" ereduak azken urteotan izan duen gorakada. Badirudi gizartea jabetu dela, euskara guztion ondasuna dela eta, beraz, gure eginbehar dugula. Egia da, bestalde, azken aldion euskarak eraso latzak ere jasan dituela. Baina, hala eta guztiz ere, gizarteak euskararekiko erakutsi duen jarrerak baikor izaten jarraitzeko kemena ematen digu.

Enpresetan, ordea, euskalgintzaren urrats horiek motelagoak izan dira. Agian ausardia falta izan zaio zenbait enpresari. Baina, ezkorregia ere ez naiz izango, egoera hori, zorionez, badoa aldatzen eta. Geroz eta gehiago dira euskara planak txertatzen ari diren enpresak. Gure inguruan bederen nahikoa aurreratuta daude batzuk. Kanpotik laguntza ere jaso dute: Elhuyar, EMUN, Kontseilua eta Bai Euskarari kanpaina... bezalako erakundeena, adibidez. Baina, honetan guztian garrantzitsua zera izan da: enpresetako langileek eurek euskararekiko ardura bere gain hartzea.

Konpromiso hori hartuz lortuko dute enpresek euskara lanerako tresna funtzionala izatea. Konpromiso horri esker, Korrika 12ren abiadan akaso ez, baina, enpresek ere egingo dute euskalgintzan aurrera. Eta horiek ere lagunduko dute mundu globalizatu honetan euskarari bere lekua ematen. Behingoz, utzi egingo zaio euskara atzerriko beste edozein hizkuntza bezala baloratzeari. Egunerokotasunean, ahozko zein idatzizko komunikazioan erabiliko da inolako erreparorik gabe. Izan ere, bazterrean edo eta stockean luze mantenduz gero, badakigu erremintei zer gertatzen zaien, ezta? Herdoildu eta erabilgarritasuna galtzen dute. Gure hizkuntzari ez bekio horrelakorik gertatu.

Lorea Agiriano

GANUZA ETXEA, ZAHAR GAZTEA

Joan zen zapatuan inauguratu zen ofizialki Jose Arana Ikastolaren egoitza berria den Ganuza Etxea. Baina inaugurazio ekitaldi honen aurretik bi hitzaldik zabaldu zuten inaugurazioaren inguruko egitaraua. Martxoaren 22an, eguena, Virginia Iglesias psikologoa izan zen Ganuza Etxeko aretoan, haurren ohituren inguruan hitzeginez, batez ere elikaduraren esparruan. Astebete beranduago, Ganuza Etxean, baina oraingo honetan goialdeko sotoan, Pello Añorga idazle, irakasle eta ipuin kontalaria hitzaldi praktiko bat eman zuen, ipuinen kontaketa gai bezala hartuta. Bere aurrean, haur gazteen gurasoek adi adi entzun zituzten Pellok emandako gomendioei.

Baina egun haundia zapatuan etorri zen, inaugurazio ofizialarekin. Jende asko bildu zen Ganuza Etxearen atzekaldeko patioan. Bertan gozatu ahal izan zuten, lehendabizi gaztetxoek, Encarni Genuak prestatutako "Galtzagorri" txotxongiloen ikuskizunarekin, eta eurentzako prestatutako eskulan eta tailerrekin ondoren. Arratsaldeko 18:30ak aldera hasi zen



Benetan jendetsua izan zen Ganuza Etxearen inaugurazio ofiziala

inaugurazioaren ekitaldi ofiziala, gaztetxoek egindako ikuskizun batekin, dantza eta kantuan. Haurrek bertan eskerrak eman zizkieten han bildutako guztiei, eta Joxerra Zubizarretak, Arizmendi Ikastolako Komunikazio Arduradunak, inaugurazioa gauzatu zuen bere hitzaldiarekin, eta ondorengo

plakaren erakustearekin.

Astelehenean, musikoterapiaren inguruko hitzaldi bat izan zen, eta Asteazkenean Jesus arranz pediatrik 0 eta 6 urte bitarteko haurren inguruko hitzaldiarekin itxiera eman zion Ganuza Etxearen inaugurazioa ospatzeko Ikastolak antolatutako egitarauari.

UDABERRIARI ETORRERA ANTIMILITARISTA



Giro bikaina bizi izan zen Udaberri Festako herri bazkarian eta gainontzeko ekitaldietan

Martxoaren 24an, zapatua, Udaberriari ongietorria emateko festa eguna ospatu zen Eskoriatzako Gazte Asanbladak antolatuta. Egunari trikipoteoak eman zion hasiera, ondorengo bazkarirako tokia egiten hasteko. Bazkaria kontzejupean egin zen, eta ia 80 lagun bildu ziren bertan, arrainzopa, erredondilua eta postria osagaitzat zeuzkan menua dastatzeko. Arratsalde aldean musikak hartu zuen txanda, eta Golpe de Estado, Anger eta Alehop taldeak izan ziren taberna ezberdinetan, bakoitzak berea eskaintzen. Gauen perkutsioari tokatu zitzaion danborren soinuekin Udaberriaren festa honi amaiera alai eta zaratsua ematea.

ESKORIATZAKO UDALA ERE GOIENA EGITASMOAREKIN BAT EGINAZ

Martxoaren 15ean Aramaion bildu ziren bailarako sei Udal, euren artean Eskoriatzakoa, Goienarekin kooperatibako bazkide izateko hitzarmena.

Joan zen Martxoaren 15ean, eguena, eta Irakasle Eskolak bere 25. urteurrenako egitaraua prentsaurrekoan aurkezten zuen goiz berean, eskualdeko sei Udal bildu ziren Aramaion Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibarekin hitzarmena sinatzeko. Sei Udalok, Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaio bera, konpromisoa hartuko dute Goienari diruz laguntzeko, eta,aldi berean, kooperatiba berriko bazkide laguntzaile izateko. Aurrerantzean, beraz, Goienako agente organoetan ordezkaritza izango dute Udalok.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak, azkenaldian asko entzun bada ere,

euskarazko herri komunikabideetan dagoen talderik sendoena bihurtu da. Izan ere, Goienak eskualde osorako astekari bat du, Goienkaria, sei herri aldizkari egiten ditu, euren artean eskutan daukazu haxe bera, eskualderako telebista bat, GoiTB, eta Arrasate Irratia. Guztira 40 langile ari dira Goienarentzako lanean, eta 235.000.000 pta.ko aurrekontua du.

Batzar Nagusia eta aurkezpena

Jozan zen zapatuan, Martxoaren

31an, bestalde, Goiena Komunikazio Zerbitzuak bere urteko Batzar Nagusia egin zuen, eta bide batez bere aurkezpen publikoa. Bertan bildu ziren Goienako langile eta buruak, herrietako alkateak, eta beste hainbat pertsonai ezagun, eta elkarte sortzaileetako kideak, hau da, bailarako euskara elkarteak. Elkarrekin bildu ziren, beraz, Arrasateko Kutxako egoitza nagusiko aretoan, elkarte sortzaileak, bazkide laguntzaileak eta lan-bazkideak.




Goienaren aurkezpen ekitaldia

ERROTONDEN LANEK AUERRERA DARRAITE

Azkenaldi honetan Eskoriatza bi errotonden artean bizi da. Alde batetik Ederlan ondoan egiten ari dena, Industrialdea izango denaren pare parean, eta Torrebaso edo Esteibar industrialdea eta Almen ikastetxea eta Ederlanentzako irteerak eta sarrerak erraztuko dituen, ia bukatuta dago, irudian ageri den bezala. Lan honek 33 milioi inguruko aurrekontua izan du, eta osoki finantziatu dute bere erabiltzaile nagusi izango diren enpresek.

Beste errotonda Aingeruardakoa da, eta motelxeao badoa ere, badirudi Apirilean zehar amaitzeko biderik egongo dela, Foru Aldundiaren esanetan.



Industrialdearen aurreko errotonda ia amaituta dago.

MUNDUAN ZEHAR HITZALDIEN BIDEZ

Aurtengo Martxoak aukera ezinobeak eskeini dizkigu gure mugetatik kanpo gertatzen denari begirada bat botatzeko. Lehenik eta behin, bi emakume indijena izan genituen Eskoriatzako Kultur Etxean, Martxoaren 8a zela eta hitzaldi bat ematen. Eurak Adelina Chon gutemalarra eta Maria Betsabe Grefa ekuadortarra izan ziren. Biak Mundukide Fundazioaren eskutik iritsi ziren gure eskualdera, Esperientzien Elkartruke Programaren barruan.

Guztiok dakigu Latinoamerikako indijenak oso egoera kaxkarrean bizi direla, baina egoera horri emakumea izatea gehituz gero, gizarteko azken mailara jaitziko ginateke. Horretxan inguruan jardun zuten biek Kultur Etxean eman zuten hitzaldi jendetsuan, eta esan behar entzun ez ezik, jendeak parte ere hartu zuela, hizlarien euren galderei erantzunez.

Bigarren zita internazionala Kurdistanekin izan genuen, kasu honetan Humanitate eta Hezkuntza

Zientzien fakultatean. Lehen bisita, hau da, Adelina eta Betsaberena Martxoaren 15ean izan bazen, bigarren hau Martxoaren 19an izan zen, eta gonbidatu bezala Mehmet Aktas eta Kiraz Bicici izan ziren. Lehena kazetari kurdoa dugu, Medya TV telebistako erredaktorea. Medya TV, nolabait esateko, kurdoen erbesteko telebista da, guztira 20 milioi inguru ikusle izango dituena. Kiraz Bicici, berriz, abokatu turkiarra da, eta giza eskubideen arloan diardu Turkian lanean, bere bizia ere arriskatuz, Turkiako gobernuak ez baitu atsegin inork bere aurpegi zikina azaleraztea. Gogoratu beharra dago kurdoak 35 milioi inguru direla, 4 herrialde ezberdinetan banatuta: Iran, Irak, Siria eta Turkia.

Harrigarria bada ere, bai Hegoamerikatik etorritakoez, eta bai Kurdistan eta Turkiakoek ere, Euskal Herriarekiko antzekotasunak nabarmendu zituzten, lehenengo kasuan kooperatibismoaren inguruan, eta bigarrenean esparru politikoan.



Korrikaldiaren ondorengo atsedena

KORRIKA TXIKIA ETA KORRIKA ESKORIATZAKO KALEETAN ZEHAR

Korrika joan zen egubakoitzean abiatu zen Gasteiztik, eta astelehen eta martitzenaren arteko goizaldean igaro zen Eskoriatzatik, Apirilaren 3. egunaren barruan. Aurtengoan ere erantzun ezinobeak jaso du euskararen aldeko ekimenak, Eskoriatzak ere euskararen alde egin nahi duela garbi adieraziz.

Baina KORRIKA ez zen ordu txiki hoietan abiatu Eskoriatza inguruetan, astelehen arratsalde osoan ikastetxeetako haurrak izan baitziren kaleak euren korrikaldi eta "Badator Korrika!" deidarrekin animatu, eta gaueko takarradarako gainontzeko herritarrak animatu zituztenak. Goizaldean, eguraldi ez oso onarekin, gainera, Oñati aldetik zetorren oinezko karabana Arrasatetik eta Aretxabaletatik pasa ondoren Eskoriatzara heldu zen, ia goizeko 3ak zirenean. Baina ordu ezegoki hau, lehen esan bezala, ez zen nahikoa izan jendeak bere euskal zaletasuna kalera atera, eta behingoz mingaina beharrean hankak erabiltzeko euskararen aldeko borroka honetan.



Adelina eta Betsabe, indijena eta emakume izateaz mintzatzen

JESUS GARMENDIA

Jesus Garmendia M.U.ko Humanitate Fakultateko Dekanoa da, eta berarekin mintzatu ginen Irakasle Eskolaren 25. urteurrena dela eta.

Dagoeneko zilarrezko ezteietara heldu zarete. Nolako sentipenak dituzu bide luze honen ondoren?


Sentimendu anitz eta ezberdinak biltzen dira momentu honetan. Batetik horrelako harrotasun puntu bat, atzera begiratzuz gero, hainbat gauza egin ditugula ohartzen bait naiz. Bestetik, pena ere bai, Irakasle Eskolaren lehen etapa amaitu dela ikusten baitugu. Orain dela gutxirarte eskola txiki bat izan gara, etxe girokoa. Orain fakultate bihurtu gara, eta ikasketen aukera ere zabaldu egin da, ... Aurrekoa ezagutu dugunok halako nostalgja bat sentitzen dugu. Baina balorazioa oso ona da, noski.

Nolakoak izan ziren hasierako egun haiek?

Garai hartan Ikastolak nahiko egituratuta zeuden zegoeneko, baina gabezia izugarria zegoen irakasleen tituluei zegokienean. Honela, HEZIBIDE izan zen Salamankako majisteritza eskolaren bidez irakasle elebidunak titulatu zituen gela bat planteatu zuena, eta baita lortu ere. Bertatik atera ziren euskal Herriko lehen irakasle elebidunak.

Irakasle Eskolaren urrats garrantzitsu bat Mondragon Unibertsitatean sartzea izan zen. Zein aldaketa suposatu zuen pausu honek?

Aldaketa nabarmen bat ekarri zuen erabaki horrek. Lehen Euskal Herriko



Unibertsitatearen mende geunden, baina Fakultate bilakatzean geuk hartu ditzakegu erabaki garrantzitsuenak (zein ikasketa eskeini, esate baterako. Oraina karrera bat interesgarri izan daitekeela ikusten badugu, proiektua landu eta aurkeztu egiten dugu. Azken lau urteotan bi karrera berri eta hainbat master jarri ditugu gure eskaintzen artean.

Bigarren aldaketa nagusia, eta hau aurrekoaren ondorio hutsa da, ikasle kopurua asko hazi zaigula litzateke. Ulergarria da, diplomaturekin hasi baikinen, ondoren lizentziatura mailara salto egiteko, eta laister doktoradutzak ere eskeini nahi

ditugu. Eskolaren maila akademikoa, beraz, nabarmen igo dela esan daiteke.

Zer suposatu dio Eskoriatzari orainarte, eta zer suposatuko dio etorkizunean, HUHEZIKo fakultate hau bertan izateak?

Ikasleen presentzia onuragarria izan da Eskoriatzarentzat, zalantza barik. Baina ez arlo ekonomikoari soilik begiratuta, herriko giro kulturala ere nabarmen aberastu baita. Gaur egun 700ikasle inguru ditugu, eta euren kopurua asko haziko ez bada ere, hoietako asko Eskoriatzan geldituko da bizitzen

IRAKASLE ESKOLAK BETE DITU BERE LEHEN 25 URTEAK

Dagoeneko Eskoriatzako zati banaezina bilakatu den Irakasle Eskolak, gaur egun Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, aurten betetzen ditu 25 urte, eta hori ospatzeko egitarau zabal bat eskeiniko du izen haundiko pertsonaien partehartzearekin.

1976 urtean, euskarazko irakaskuntza nahiko hedatua eta egituratua bazegoen ere, ez zegoen irakasle euskaldun titulodunik. Egoera hari irtenbidea emateko, HEZIBIDE elkarteak Eskoriatzako Irakasle Eskola sortu zuen, ordurarte titulorik gabe zebiltzan irakasle haien egoera erregularizatu nahian. Lehen urrats hura Salamankako Unibertsitate Pontifizioaren hegalpean egin zen, bere gela bat gehiago bailitz hasi baitzen lanean Eskoriatzako Irakasle Eskola hura. Bi urte beranduago Espainiako Hezkuntza Ministerioak Irakasle Eskolaren ikasketa plana ontzat eman zuen, eta Bilboko Unibertsitateari atxiki zitzaion, geroago Euskal Herriko Unibertsitatea bilakatuko zena.

Aurreko errejimen diktatorialean ez bezala, gazteak begi onez ikusten hasi ziren irakaskuntzaren bide hura, eta horrela, 1979an atera zen Eskoriatzako Irakasle Eskolako lehen promozioa, 39 irakasle diplomatuk

osatua. Bi urte beranduago, ordurarte titulurik gabe ibilitako 147 irakasle besazpian titulua zutela atera ziren Irakasle Eskolatik. Orotara 700 izango ziren ikasketak amaitu zituzten titulurik gabeko irakasleak.

Gaur egun, ordea, lehen urtetako egoera hura zeharo aldatu da. Urte guzti hauetan 1500 gastek lortu dute irakasle diploma, eta dagoeneko ez da Irakasle Eskola soila, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea baizik. 1997an gertatu zen aldaketa hau, eta Irakasle Eskolak zuen jarduna zeharo aldatu zen. Urte horretan hasi zen Humanitateak-Enpresa lizentzia ematen, eta denbora gutxiren buruan jatorrizko eraikina txiki geratzen hasi zitzaion. 1999an Gizabide Fundazioak XVII. mendeko San Biator eraikina erosi zuen, espazio eskasia hari irtenbidea eman nahian. Baina ez zen hori izan urte

horrek eman zuen berri bakarra, lehen Masterra ere urte horretantxe sortu baitzen: "Enpresa Proiektuen Zuzendaritza" izenekoa. Master honetara 400 lagun inguru aurkeztan da, baina 20k besterik ez dute lortzen aurrera egitea.

Aurten, Irakasle Eskolak 25 betetzen dituen urte berean, Humanitate-Enpresako lehen promozioa irtengo da Ekainean. Baina zilarrezko ezteien ospakizunak lehenago hasi dira, Martxoaren 15eko prentessaurrekoan Jesus Garmendia, Pili Sagasta eta Joseba azkarraga aurrerratu zuten bezala. Prentsaurrekoan Jesus Garmendiak adierazi zuen bezala, era honetako ospakizun bat egiteko hiru modu daude: lehenengoa atzera begiratzea litzateke, erakusketen bidea eta begirada historiko bat emanaz; bigarren bidea ludikoa litzateke, ekitaldi kulturalen bidez ospatuz 25.



Joseba Azkarraga, Jesus Garmendia eta Pili Sagasta ospakizunen aurkezpenean

urteurren hau; azkenik, eta hauxe da aukeratu dutena, bide akademiko zientifikoa gelditzen. Horrela, izen eta pertsona esanguratsu eta garrantzitsuak bildu dituzte gizarteari euren jakintza eta esatekoak gerturatzeko. Filosofia hauxe izan da ospakizun hau egiterakoan gailendu dena.

Lehen ekimena Martxoaren 29an hasi zen, "Mundu eleanitza" eta "Hezkuntzaren funtzio soziala" gaitzat hartuta, jardunaldiak egin baitziren bi egunetan jarraian. Martxoaren 30an, joan zen Ostirala, eta jardunaldion bigarren eguna, beste ospakizun bat ere izan zen, benetan unkiagarria, Irakasle Eskolako aitzindariari omenaldi beroa



egin baitzitezaien. Omenduak Irakasle Eskolako lehen lehendakaria, Juan Mari Otaegi, lehen zuzendaria (Felix Ormaetxea, eta lehen langile jubilatua izan ziren, azken hau Mertxe Bolinaga.

Atzo bertan beste ekitaldi azpimarragarria izan zen, "Erlizjio XXI. mendean" izenburuko jardunaldietan Jose Maria Setien Gipuzkoako gotzain ohia, eta Frantziako Gaillot gotzain ospetsua izango baitira, azken hau "Paternia" izeneko hiri bertualeko gotzaina, eta baztertuekin lan bikaina egiten ari dena.

Maiatzaren 10 eta 11an izango da hurrengo zita garrantzitsua, izen haundiko hizlari baten hitzak entzuteko aukera izango baitugu. Bera Federico Mayor Zaragoza da, UNESCOko lehendakaro ohia, eta kasu honetan "Etika eta enpresa: Enpresa proiektu etikoa eta etika proiektu enpresariala" izeneko jardunaldietan partaide.

Maiatzaren 26an, ospakizuneri festa kutsua eman nahian edo, Irakasle Eskolako ikasle eta irakasle ohiak elkartuko dira, eta ziur izango dela zer esana eta zer entzuna, 25 urtek askotarako ematen baitu. Zorionak, bada, Eskoriatzako Irakasle Eskolari, eta urte askotarako!

Bretainiatik Danimarkara, itsasgizon haundien bideari jarraiki (II.)

lazko Uztailaren 31an abiatu ginen lau lagun Britainia aldera, bertatik hasi eta kostaldeari jarraiki Danimarkaraino heltzeko. Bide hauxe bera, baina itsasoz, duela mende asko hasi ziren egiten Europako itsasgizon ausartenak. Kostalde bikaina, eta pirata, kortsari, bikingo eta arrantzale askoren bidea hiru herrialde zeharo ezberdin ezagutzeko: Britainia, Holanda eta Danimarka.

Aurreko atalean azaldukat bezala, gure Britainiako ibilaldia Mount St. Michel paregabean amaitu zen, Britainia eta Normandiaren arteko muga-mugan. Joan zen hilean esan nuen bezala, hauxe izango zen bidaiari zehar aurkitu genuen gune interesgarrienetako bat. Baina ez azkena, noski, oraindik egun mordoxka bat gelditzen baitzizkizkiz gure helburua lortzeko, hau da, Holanda eta Danimarka.

Honela, Britainia utzi eta Holanda alderako bideari ekin genion. Bidaiak ez zigun arazo handirik eman, baina hemen dator Holandara doanarentzat lehen gomendio saheskaitza: kotxez bazoazte Amsterdam aldera, eta inoiz ez bazarete aurretik egon (gu aurrez izanak ginen, baina inoiz ez geure autoan), hobe duzue ez hirira sartzea, hura autogidariarentzako infernua baita. Alde batetik autoentzako bideak daude, baina hemen ez bezala,




Amsterdameko Auzo Gorriko kale bizitza etengabea.

autoentzako ezezik, bizikletentzako, autobusentzako eta tranbientzako ere bideak daude, gidapena sei zentzumenak adi adi dituzula egin beharko duzularik. Eta horixe gertatu zitzaizkizkiz guri, kanpinaren bila hasi, eta aurkitu ezin genuela ikusita, Amsterdamen sartzea erabaki baikenuen. Erabaki txarra benetan. Azkenean, taxi bat hartu behar izan genuen gutako bik, eta beste biak autoarekin atzetik.

kanpin batera eraman gintuen, eta huraxe izan zen bigarren sorpresa. Kanpineko atari gunean tokia bazegoela esan ziguten, baina geuk aurkitu beharko genuela. Kanpinean buelta bat eman orduko konturatu ginen han ez zegoela partzela bat aurkitzerik, dena dendaz josita baitzegoen. Ahal zen tokian aterpea jarri, eta Amsterdameko lehen gaua igaro genuen.

Taxi gidariak Zeeburg izeneko

Amsterdam hiri benetan bikaina da, nahiz eta lehenengo inpresioa



Kopenhagen zeozer badago ez dena batere gomendagarria, hauxe da...

nahiko estresantea izaten den orohar. Central Stationetik Damm plazaraino doan etorbidea komertzioz betea da, eta nahiko turistikoa. Baina Damm plazan ezkerretara hartuz gero, auzo gorrian sartuko gara, coffee-shop ugari eta emakumeak eskaparateetan salgai. Fribolo xamarra dirudi guzti honek, baina berehala ohartuko da Amsterdam zapaltzen duenak ez dela itxurakeria hutsa, holandarren bizimoduaren eta izatearen islada baizik.

Amsterdamen ikusi beharrekoak dira Madame Tussaud-en argizari museoa, benetan ikusgarria, Waterlooplain-eko eguneroko merkatua, edozer aurki dezakezuna bertan, coffee-shopen bat, kalamuaren erabilera legalaren adibide bezala, eta noski, Van Gogh museoa, bere artelan nagusiak biltzen dituena. Museo zaleak bazarete, zortea duzuen Holandan, eta konkretuago Amsterdamen, museoen hiriburu bezala ere ezaguna baita. Anna Franken etxea bera ere ikusgai izango duzue hiriaren alde historikoan, alemania naziaren lekukotasun minkorra bere baitan gordetzen duena.

Lehen esan dudan bezala, Amsterdam nahiko estresantea izan daiteke hainbat egun bertan eman ondoren, eta hau ekiditeko Iparralde aldera jo genuen, Groningen izeneko

hirira. Groningen ikasle hiri bat da, bertan unibertsitatea baitago. Beraz, abuztua ez da agian garairik onena bertara joateko, nahiko hilda egoten baita, baina urteko beste sasoi batzuetan ezagutu dugunok badakigu zein bizitasun daukan ikasleak euren ikasturtean dauden bitartean. Merezi du Groningenek, eta gure kasuan hare gehiago, bertako lagun bat bisitatzen izan baikin.

Bikingoen lurraldera

Holandatik Danimarka aldera egin genuen, bere hiriburu den Kopenagera, konkretuago. Lehenengo impresioa oso txukuna da Kopenhagen, dena ongi baino hobeto zaindua baitago bertan. Oso kutsu haundikoia dario hiriburuari, erret hiriarena, alegia. Baina badago auzo bat Kopenhagen, Christiania izeneko, benetan bitxia eta liluragarria dena. Christiania 1971 arte base militarra izan zen, baina hauek alde egin zutenean hippiek okupatu zuten, gaur egunerarte iraun

dutelarik. Christianiara sartzen zarenean garbi ikusten duzu beste dimentsio batera sartzen zarela, garbi jartzen baitu sarreran, han sartzean Europatik ateratzen zarela. Danimarkako estatus kontserbatzaileari ez zaio hau asko gustatu behar, baina ukaezina da erakargarri turistiko ezinobea bilakatu dela, bere kalamu merkatuarekin, eta komuna kutsu horrekin. Denetarik geneukan entzunda hara heldu baino lehen, baina bisita benetan gomendagarria iruditu zitzaigun, ezberdina. Irlatxo bat.

Kopenhagen bertan ere zer ikusi anitz dago, alde batetik bere monumentu megalomanoak baitaude, eta bestetik kale bizitza sutua. Kontuan izan munduan den oinezkoentzako kale luzeena bertan aurkituko duzuela, Stroget kalea hain zuzen. Bertan denetarik ikusi ahal izango du bisitariak: kontzertuak, margolariak, antzerkia, performanceak... Hori bai, "La Sirenita" delakoa, Kopenageko ikurra, fraude hutsa iruditu zitzaigun guztioei. Gainontzekoa interesgarria.



Pirata eta bikingoen lurralde honetan itsasontziak nagusi

Azkenaldian apaiz eta monjen harremanak aidean dabilta. Zein litzateke zure ustez irtenbidea?



MARIA MONTERO

Ni katolikoa naiz, eta uste dut ezkontzea libre izan beharko luketela apaiz eta monjek, pertsonak baitira azken finean, gainontzeko guztiok bezalakoak.



TXOMIN ARRIETA

Uste dut ezkontzeko eskubidea balute ez luketela izkutuan ibili beharko. Harremanek berdin jarraituko lukete, baina ezkontuta baleude, harreman horiek ez lirateke arazo bat izango.



JAVIER SEDAN

Egia esatea nahi baduzu, ezkontzeko eskubideak arazo hori konponduko luke, haiek ere pertsonak baitira. Nire ustez ezkontza litzateke irtenbide garbiena.



SANTI E. SALAZAR

Ezkontzea libre izan beharko lukete, era horretan jende askoz gehiago animatuko bailitzateke monja edo apaiz izatera, beste edozein lanetan bezalaxe. Badakigu eskasia dagoela alde horretatik, eta hau konponbide bat izan daitekeela uste dut.



CONRADO ENCINA

Ez litzaidake gaizki irudituko ezkondu ahal izango balira, izkutuan ibiltzeaz gain, jende gehiago erakarriko bailuke lanbide honetara. Pentsatzen dut erabaki negatiboa behintzat ez litzatekela izango.



FRANCISCO JAVIER BLAZQUEZ

Gai hau ez da batere berria, eta uste dut bakoitzak nahi duena egin beharko lukeela. Era horretako harreman bat ez dut gaizki iruditzen, baina bai uste dut ezkondu ahal izateak zama hori arinduko liekela.

Herriaren dekoratzaileen inguruan...

Duela egun batzuk soineko urraduren tarrastaden hotsek esnatu ninduten. Arrapataka atera nintzen kalera zerbait larria gertatzen zelakoan. Zer ikusiko eta jende mordoska bat, aldamaneko hau buru, aiena baten. Kexu. Haserre. Demandan. So ezkerretara, so eskumatara, so aurrera, so atzera... eta ez nuen ezertxo ere ikusten. Ez behintzat pertsona bat egoera hain estu, penagarri eta nekosoan ikusteko, beti kexu izatea nekoso baina.

“Ze pasetan dok ba?” galdetu nionean purrustada luze bat bota zuen eta ez nion tutik ulertu. Bueno, bai. Hitz bakar bat aditu nion: pintadak. Orduantxe konturatu nintzen, aspaldiko partez herria pintadaz josita zegoen. Irribarrearen autopistak belarri bat bestearekin lotu zuen. Zidan. Ez da maltzurkeria. Ekain, Santimamiñe eta Altamirako txamanen marmarrak otu zitzaizkidan.

Izan ere, bizi garen herrian, bizi dugun gatazka-liskarrean, “hormaspraiko” hitzak aspalditxo eman zion izena egoerari. Garai bateko “Zeruko Argia”n astero-astero zuen orri oso bat. Alboko Jonek ondotoxogoratu du. Baita eskuak burua eusteko darabiltzaten beste hainbatek ere. Zer gertatzen da bada, egun hain aztoratuta azaltzeko?. Gatazka bukatu ote? (Hala bada pintada bat egin dezatela, ni ez naiz enteratu eta). Ez, gatazkak bere horretan jarraitzen du, baina badugu gure iritziak non aldarrikatu, herri mailan sikiera. “Telesko” eta “Ze Barri?”n. Hedabide propioak dituen herriaren abantailak, txikito. Honela alde zurretik jakinaren gainean dauden hogeita bostak berriro izango dute gure iritziaren barri. Eta besteek? Hor-konpon-marianton?. Jakizu betizu, dakizuna egizu: Hormetan botatoko mezuak mezu horien berri jakin nahi ez dutenentzako dira. Bizi dugun egunerokotasuna ezkutuan nahi dutenentzat.

Dena den ez dezagun ahantz hormaspraikoa joan-etorriko bidea zela/dela. Eta hedabideen menpe erabat bonbardatuta bagaude ere ez litzateke arraroa egunen baten gure hormak honelakoren batekin azaltzea: “¡Estais matando trabajadores. Pistoleros!”.

“Aitatxo, zertarako zikindu dute Eskoriatza pinturakin?”

Martxoaren erdi aldean izan zela uste dut, edo hor nonbait. Espraikomando batek herriari sekulako pasada eman zion azken garzonada zela eta. Mezuak, batzuk informatibo hutsak ziren: ez dakit zenbat lagun atxilotu zituztela, esaterako. Beste batzuk, galdera erretoriko itxurakoak (*erretorikoa* diot ez dudalako uste pintorea zer erantzungo zain zegoenik, behar bada, bazekielako erantzuna zein den, edo bestela, ez zitzaiolako erantzun zekiokkeenetik tutik ere inporta); horien artean, geure pakea hau al den, porejenplo. Bestelako batzuek, azkenik, mehatxu traza osoa zuten: ordainduko dugula egindakoa zioen bat datorkit burura oraintxe bertan. Total, herriaren pareta piloa pinturaz kakaztuta.

Eta orain, zilegi balitzait, behintzat, zera galdetu nahi nioke pintoreetakoren edozeini: zer helburu zeukan ekintza komunikatibo horrek? Komunikatzeko burutzen ditugun guztien helburua, prezisamente, komunikatzea bada, eta horretarako igorlea eta hartzailea behar baditugu, esan nahi du honek mezuon hartzaile eskoriatzarrok garela? Neurean ere bada pintadarik; eta alboan idazten duen honenean ere bai; eta udaletxean; eta zabor-kontainerretan; eta... Horietan *bizi* garenok gara mezuon hartzaile? Hala bada, zergatik ez dituzue beste kanal batzuk erabili? Eskoriatzan badira (*Telesko, Ze Barri...*), eta ez dut uste inolako eragozpenik jarriko litzazuekeenik hauek erabiltzeko. Edo, bestela, mezuak buzoneatu. Edo pankartak erabili. Eta eskoriatzarrok ez bagara informazio horien hartzaile zuzen, guztiz soberan leudeke pintadok, horren guztiaren jakitun baginelako eta herria kakaztu baino ez dutelako egin. Zikinak, alferrikakoak eta alternatibadunak, beraz.

Badirudi pintadagileak oso kabreatuta zeudela, baina hartzailez konfunditu dira, bete-betea, gainera. Eta oso demagogo banabil zutabetxo honetan, sentitzen dut, baina total pasaua iruditzen zait egindakoa. Ni ere oso kabreatuta, baina adeitasunez, agurtzen zaituztet.

jone eta jojo

ZE BARRIren atal hau, garaiei egokituz, interaktiboa egin nahi izan dugu. Dakizuen moduan, atal honetan Jonek eta Jojok gai jakin bati buruzko eritzi kontrajarriak botatzen dituzte... Baina orain zuek, irakurle guztiek ere, zuen keja, iradikizun, protesta, animo, irain, piropo edo dena-delakoak Jone eta Jojori helarazi diezazkiezue.

E-mail bat bidali ondorengo helbide elektronikora, bertan nahi duzuen hori garbi jarriaz:

jojone@euskalerrria.org

DIRULAGUNTZAK

*Nekazaritza eta arrantza arloan ikerketak egiteko dirulaguntzak. Epea: apirilak 24.

*Eusko Jaurlaritzaren eskutik, kontsumoaren arloan hezkuntza edo ikerketarako dirulaguntzak. Epea: apirilak 30.

*"Censolar"en eskutik eguzki energia instalatzaile-projektista titulua ateratzeko dirulaguntzak. Epea: apirilak 30.

*Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat dirulaguntza antolatu du: -musika, dantza eta antzerkia arloetan espezializazio ikasketak egiteko dirulaguntzak. Epea: maiatzak 15.

-ikus arteetako eta literatur sorkuntza arloetako bekak eta sustapen laguntzak. Epea: maiatzak 15.

-"Nikanor Zabaleta" musika bekak. Epea: maiatzak 15.

LANA

*Eibarko Udalerako kultura laguntzailea behar da. Epea: apirilak 11.

*Eibarko Udalak udaltzainak behar ditu. Epea: apirilak 14.

*Eskoriatzako Udalak hainbat postu bete nahi ditu: kirol instalazioetako atezaina, 2 peoi eta administrari harreragilea. Epea: EAOean argitaratu zain.

*Irungo Udalerako gizarte laguntzailea behar da. Epea: EAOean argitaratu zain.

IKASTAROKAK

*Arrasateko INEMek hainbat ikastaro antolatu du: geriatría

laguntzailea, soldadura, diseinu grafikoa, internet hastapena...

UDALEKUAK

*Euskal Udalekuak: Abaigar, Bernedo, Goñi edo Urdiritzen egonaldiak egiteko aukera. Epea: apirilak 20.

*Foru Aldundiaren eskutik, 14-17 urte arteko programa: aisia, kirola, ingelesa, eta hainbat tailer egiteko aukera. Epea: apirilaren 25etik maiatzaren 7ra.

BRIGADAK

*"José Martí" Euskadi-Cuba Elkartek, urtero lez Cuban lan brigadak antolatu ditu, uztailen zehar lur landetan lan egiteko.

IKASTAROKAK

*Udaleko Gazteria Sailak antolatuta Bio-dantza ikastaroa, norbere adierazpena, bizitasuna, sormena eta autoestima lantzeko ikastaroa. Maiatzeko larunbat arratsaldetan, 4etatik 7etara. Matrikula: 4.000 pta/2.500 ikasle edo langabeentzat.

*Hastapen mailako argazkigintza ikastaroa, larunbata goizetan, 10.30etatik 13.30etara. Maiatzak 5etik ekainak 16ra.

LEHIAKETAK

*Zumarraga-Urretxuko udalak argazki lehiaketa antolatu du. Gaia eta teknika librea, zuri-beltzean edo koloretan. Epea: irailak 7.

*Urretxu-Zumarragako pintura lehiaketa. Lanaren gaia eta egiteko modua egilearen aukeran. Epea: irailak 7.

GALDUTAKOAK

*Martxoaren 10ean

Eskoriatzako autobus geltokian eskiatzeko betaurreko batzu galdu ziren. Norbaitek aurkitu baditu, deitu dezala mesedez Ze Barri? aldizkarira. eskerrikasko.



ESKORIATZA

Udaletxea	943-714407
Udal Bulegoak	943-714532
Udalzaingoa	943-714407
Euskaltegia	943-792168
Kultur-Etxea	943-714688
Gizarte-Laguntzailea ...	943-713136
Kiroletxea.....	943-715328
Liburutegia.....	943-713135
Luis Eceiza.....	943-714938
Jose Arana-Almen Ikastola	943-714486
Almen	943-714964
Museo-Eskola	943-715453
Ze Barri?	943-715434
Talde Antimilitarista ...	943-714537
Irakasle Eskola	943-714157
Osakidetza	943-714452
Telesko	943-714917
Taxia	943-714059

BESTELAKOAK

Eskualde-Ospital (Arrasate) ...	943-795300
Gurutze-Gorria (Bergara)	943-765576
Ertzaintza (Arrasate) ...	943-797199
Suhiltzaileak (Oñati) ...	943-792800
Renfe (Zumarraga)	943-721515
Renfe (Gasteiz)	945 232030
Pesa (Arrasate)	902 101210
Larrialdiak (Arrasate)...	943 771043
SOS Deiak	112



Aerobiki

Eskoriatza

kurte

hamaika lan

2004.05.20



Zerbitzu berriak

Zatoz ikustera!



AERO-FIT Tonifikazioa+Aerobika
Astearte eta ostegunetan 19'30 etik 20'30era

matrikula zaitetz!



Zainduz
OSASUN ETA FITNESS ZENTRUA
CENTRO DE SALUD Y FITNESS



AEROBIK TXIKI
Asteazken eta ostiraletan 16'45 etik 17'30era

AIKIDO TXIKI
Astearte eta ostegunetan 16'45 etik 17'30era

Ilargi Plaza, 6 • Tel.: 943 71 27 92 • Mob.: 658 75 80 12 • ARETXABALETAKO



XSARA PICASSO 1.GO URTEURREN OPERAZIOA

Primeran ospatzeko urteurrena



CITROËN XSARA PICASSO

400.000 + 120.000 PEZETA ARTE

PEZETA AURREZTU*

PLAN PREVER BERRIA



CITROËN XANTIA

600.000 + 120.000 PEZETA ARTE

PEZETA ARTE AURREZTU*

PLAN PREVER BERRIA



CITROËN SAXO

400.000 + 120.000 PEZETA ARTE

PEZETA AURREZTU*

PLAN PREVER BERRIA



CITROËN XSARA BERRIA (PICASSO IZAN EZIK)

500.000 + 120.000 PEZETA ARTE

PEZETA AURREZTU*

PLAN PREVER BERRIA

* Fabrikatzaileak gomendatutako salneurriarekiko aurrezpena (BEZ, matrikulazio zerga barne). Ez da pillagarria. Hil bukaera arte baliagarria, penintsula eta Balear Uharteetan stockean dauden autoentzat. Citroen informazioa: 902 44 55 66. www.citroen.es

CITROËNEK EDOZER EGIN DEZAKE ZUGATIK

BISITA GAITZAZU:

CHAPIME TAILLERRAK

Citroën-en banatzaile ofiziala • Araba etorbidea z/g • Tel.: 943 79 45 22 • ARRASATE



CITROËN